



Mikel  
Alvarez

## «Herritarrek AHTz duten iritziaren beldur dira agintariak»

Paris, 1962. AHTren aurkako Asanblada eta AHT Gelditu! Elkarlana taldeetako kidea.

Herri ekimenetan aritua: mugimendu antinuklearrean eta antimilitaristan. Donostiako Gaztetxeke kide eta objektore izana. Etxe okupatu batean bizi da Trintxerpen: “Leitzarango autobidearen aurkako borrokan ari ginela, hasi zen AHTren proiektua” esan digu. Mundua gero eta azkarrago doa, alabaina, borrokarako eremuak ez dira Mikel Alvarezentzat agortzen.

AHTren oinarrizko erabakiak 1988an hartu ziren. 1991n Eusko Jaurlaritzak aurreproiektua iragarri zuen inolako eztabaidarik –eta informaziorik eman–gabe, esan digu Mikel Alvarezek.

1992an Jose Antonio Ardanza lehendakaria eta Akitaniako Jean Tavernier presidentea TGVren (Abiadura Handiko Trena) lehen bidaiaren (Paris-Tours) karietara mintzatu ziren publikoki gaiaz. Iparraldera iristear zen TGVren eta Euskal Yren egitasmoak filtratu ziren prentsara: “Berriak Iparraldeko herri kaltetuetako jendearen erreakzioa eragin zuen.

**MIKEL ASURMENDI**

Argazkiak: Dani Blanco

AHTren proiektua uste baino askoz aurreratua zegoela ohartu ginen gu halaber. Kanean ez zegoen erantzunik ordea”.

AHTren aurkako Asanblada 1993an eratu zen, 2001ean berriz, AHT Gelditu! Elkarlana. Bigarren ekimen honen inguruan hainbat talde, sindikatu eta alderdi biltzen dira.

AHT Gelditu! Elkarlana oinarrizko hiru puntutan adostuta dago. AHTren aurkako Asanbladako Mikel

Alvarezek laburbildu dizkigu puntuok: “Lehena: ingurumenean eta ekonomian eragiten dituen kostu larriengatik uko egiten diogu AHTri. Nekazaritzaren –eta hirien– eremu antolaketan sorrarazten dituen desorekengatik bereziki. Bigarrena: proiektuaren lan prozedura eta inposizioa salatzen ditugu. Erabaki ahalmena herritarrei ematea –bereziki herri kaltetuetakoei– eskatzen dugu. Hirugarrena: instituzioek inposatzen duten garrario ereduaren eztabaida aldarrikatzen dugu, gizarte ereduaren eztabaida sustatu aldera”.

AHT Gelditu! Elkarlana ez da gel-dirik. Hitzaldi bat burutu berri du Hernanin. AHTren aurkako protesta eta mobilizazio egunak bultzatzen ari da eta Manifestazio Nazionala iragarri du Arrasaten abenduaren 15erako.

### Une honetan zer azpimarratuko zenuke AHTren auzian?

Eusko Jaurilaritzaren azken iragarpena: errepideetako arriskua eta ibilgailuen metaketa konponduko dituela esan du berriz ere: "AHTk N1eko eta A8ko trafikoa astunaren gehiengoa bereganatuko duela" dio. Argudio hau gezur hutsa da. Egun 10.000 kamioik zeharkatzen dute Behobiako muga, eta eredu sozioekonomikoa eta globalizazioa dela medio kopurua aurki bikoiztuko da. Hona datu bat, adierazgarria oso: AHTk egun EAEn dabil-tzan trafikoa motordunen %0,15 bereganatuko du soil-soilik. Garraioa gutxitzen joateko hazkunde murriztuko lukeen eredu sozioekonomikoa landu behar da, aldiz, EAE garraio-gune erraldoia bilakatzen ari da. Agintarien hitzak eta benetako asmoak ez datoz bat. Beren argudioak gezurretan oinarritzen dira.

### Herritarrek AHT egin eginen dela "asumituta" daukatela esaten badizut? Zuek ere bai?

Inondik inora ez. Horiek sentipen derrotistak eta fatalistak dira. Guk horiek astintzen eta zalantzan jartzen ditugu. Sentimendu hori Hegoaldean bederen heziketa politiko guztiz autoritarioaren ondorioa da. Hainbatek etsipena "nahi dutena egingo dute!" transmititzen du. Gu baina, gizarte aldaketaren alde borrokatzen ari gara, horretan sinesten dugu. Gizartean eragiten duten erabakietan herritarrek parte hartu dezaten ari gara lanean.

"Herritarrak ez dira Euskal Yren proiektuaz jabetu" esan zigun Iparraldeko Victor Pachonek orriotan. Desinformazio handia dago, egia da. Proiektua gero eta ezagunagoa da hala ere. Soziologo talde batek egindako inkestak "herri kaltetuetako jendearen erdiak ez daki ezer" dio. Beste erdia berriz erdibituta dago. Hauen erdia baino gehixeago AHTren kontra

### "Agintarien hitzak eta benetako asmoak ez datoz bat AHTren proiektuan.

### Beren argudioak gezurretan oinarritzen dira"

dago. Beraz, zenbat eta informatuago izan, interesa eta aurkakotasun handiagoa dago egitasmoarekiko.

### Unea erabakigarria da, antza.

Bai. Azken bi urteetan oposizio guneak indartuz joan dira: ekintzak, mobilizazioak eta era guztietako adierazpenak izan dira. Legutioko (Araba) alkateak, esaterako, AHTk okupatuko dituen lurren aktak ez zituen sinatu. Arabako Lukon iaz hasi ziren lanak, baina agintariak espero baino motelago doaz. Debagoienan eta Durango aldean lanak ez dira hasi oraindik. Erresistentziaren ondorioz etorri dira geldialdi hauek. Jaurilaritzak lanak berehala hastea nahi du noski, AHTren aurkako oposizioa hainbat udaletan tinko eta ageriko izan arren.

Unea oso garrantzizkoa da eta zenbait komunikabidetatik intoxikazio kanpaina zabaldu dute: AHTri buruzko eztabaida desitxuratzea dute helburu, hainbat hedabide edozein oposizio kriminalizatzeko nahian ari da.

### Jaurilaritzaren jarrerarekiko borrokan segituko duzue edonola ere.

Bai. Jaurilaritzak herri mugimenduarrekiko nahiz hainbat udalekiko duen jarrera prepotentea salatu nahi dugu. Azken hauteskunde ondoan AHTkiko jarrera nabarmen aldatu da hainbat herritan. EAJk gobernatzeko zituen hogeitaz bat udal ezker abertzaleko alderdien aldera pasa dira, ANVren edo independenteen eskura. Legutioko kasuan, alkatea EAko da eta AHTren aurkako ekimenak babestu ditu. EAeko Garraio Sailburu Nuria Lopez de Gereñuk ordea hala galdetu du: "Udal hauek alkatetee bide guztiak erabiliko dituztela AHT geldiarazteko esaten dutenean, zer ari dira sabotajeaz hitz egiten?". Jarrera hori salagarria da guztiz. Instituzioen jarrera ez da aldatu, okerrera egin du.

erandion abenduaren 1ean

Euskaraz egindako ikuskarrien maratokia.  
Gure unibertsoaren kultur festa

12: 

Goizeko 9etan hasi eta goizeko 9ak arte: "Bertsotrupak", Hartzmuga, Goloka, Txakungo Bembé, poitzzak, umeentzako tailerrak eta guzgarriak, erraldoiak, herri kirolak, euskarazko materialen informazio gunea, errotonia...

[www.12ordu.org](http://www.12ordu.org)

*Eskolan, etxean, lagunekin, jolasean... euskaraz!*

   *Zidaz metroz!*

## TERMOMETROA

Mikel Alvarez

Elorrión (Bizkaia) AHTri buruz galdeketa egiteko erabakiari helegitea jartzeko agindu du Paulino Luesma Espainiako Gobernuaren ordezkariak EAEn.

Eta herri galdeketa hauek ez dira lotesleak, herriaren hitza eta jarrera ezagutzeko adierazpenak dira. Alabaina, Estatuko ordezkaria EAEn galdeketa debekatzen saiatzen da behin eta berriz, mehatxuak eta guzti. Aramaion (Araba), esaterako, herritarrek galdeketa bertan behera utzi zuten Herrizaingo Sailak Ertzaintza bidaliko zuen beldur. Herriak azkenik galdeketa egin zuen debekuari gain hartuz. Agintariak sekulako beldurra diote herritarrek iritzia agertzeari. Galdeketa AHTren oposizioari zilegitasun handia eman diote, ia denak aho batekoak izan dira.

### Hala nola?

Orain arte zazpi herritan egin da herri galdeketa. Urbinan 114 pertsonetatik 108k kontrako botoa eman zuten eta sei abstenu ziren. Bergara (Gipuzkoa) ondoko Angiozar auzo-herrian –Luesmak Aramaiokoa debekatu ondoren– galdeketa ezkutuan egin zuten. Bozketak ia aditzera eman gabe, erreakzioaren beldur: parte-hartzea %94koa izan zen, %97a kontra izanik. Atxondon (Bizkaia) %42ak parte hartu zuten. Alkatea EAJkoa da. Zailtasun asko jarri zituen arren, ia erdiak botoa eman zuten eta honen erdia kontra agertu.

### Ibarretzek herri galdeketa aldarrikatzen duenean, zer pertsatzen duzu zuk?

AHTren aurkako manifestazioetan, Ibarretxeri bere lema –AHTren auzian– indarrean jartzea eskatu zaio, hau da, herritarren hitza kontuan hartzea. Gipuzkoako Itsasondo herrian auzia agerikoa da: Jaurlaritzak lanak

“Espainiako Gobernuak nahiz euskal instituzioek herri mugimenduek AHTren aurka egiten dugun lana desitxuratu eta nahastu nahi dute”.

enkantean eman zituen duela bi urte, gero eten ziren, eta berriz abiatu dira. Itsasondon bereziki Ibarretxeren “herriaren hitza errespetatu lema” aldarrikatu zen. Herri galdeketa egin da eta aurkako jarrera nagusitu. Interes ekonomikoak eta gizarte ereduak jokoan daudenean ordea, erabakiak eliteek hartzen dituzte, herriaren nahiaren gainetik eta inposaketaz. Eztabaida duela bi urte bukatu zela esaten dute orain lotsagabeki, baina eztabaida ez da sekula izan, ezta eztabaidatzeko asmorik ere.

### Lopez de Gereñu sailburuak sabotajeak aipatu ditu. Ezker Batuak (EB) horrelakoak izanez gero ez duela mobilizaziotan parte hartuko esan du.

Azkenaldion intoxikazioa izugarria da. AHT Gelditu! Elkarlanak informazioa eta mobilizazioa ditu ardatz nagusiak, horiek dira gure lan tresnak. Sabotajeak? Ekintza sinbolikoak izan dira, publikoki eginak, baina horiek deabruen ekintzen pare jarri dituzte.

### El Paísek berriz ETAK AHT jomuga duela kaleratu berri du.

Informazio hori gu kriminalizatzerazuzenduta dago, baita, zeharka EAJri

zuzenduta ere. Poliziaren intoxikazioa dago horren atzean. Honen harian *Diario Vascon* Javier Balza barne kontseilariari galdetu diote: “ETAK AHTren aurka joko duen zantzuak al daude?”. “Ez” erantzun du. Intoxikazio kanpaina hau AHTren aurka ari garen pertsonak kriminalizatzeko antolatuta dago.

### Zuek aurrera segituko duzue.

Bai, noski. Guk AHTren kontra egitean eztabaida zabala sustatu nahi dugu. Eredu soziala, ingurumen nahiz ekonomia ereduak lantzen ari gara. Estatuak eztabaida hori moztu nahi du. Espainiako Gobernuak nahiz euskal instituzioek herri mugimenduek AHTren aurka egiten dugun lana desitxuratu eta nahastu nahi dute. Estatuak errepresioari bide ematen dionean, zein ondorio latzak izaten diren denok ezagutzen ditugu herri honetan. Tamalez, auzi honi ere errepresioaren bidez ekin nahi diotela dirudi. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria/2113> helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea eta bideoa.



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 801684  
e-posta: [ondarre@nispavista.com](mailto:ondarre@nispavista.com)  
[www.acvmmultimedia.com/ondarre](http://www.acvmmultimedia.com/ondarre)